



## **2014KO MARTXOAREN 7KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko martxoaren hamalauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Haizea Mendia Insausti.

Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia ez da bertaratu.

Alkatearen gonbidapenaren aurrean, ahotsa bai baina boturik gabe, bilerara Ane Irastortza Izagirre zinegotzia bertaratzen da baita ere.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko otsailaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAU MILA ZAZPIEHUN ET HAMALAU EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI (4.714,59 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### **III.- MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-**

Martxoaren 8an emakume langilearen nazioarteko eguna dela eta, Bildu eta EAJko udal taldeek adostuta ondorengo adierazpen instituzionala aurkezten da Tokiko Gobernu Batzorde honetara, bere onarpenerako.

Adierazpen instituzionalak honela dio:

**“MARTXOAK 8 EMAKUME LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

Martxoaren 8an Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna ospatzen da mundu osoan zehar.

Aldarrikapen egun honen jatorri nagusia XX. mende hasierako Errusian Iraultzan dago. Lehen aldiz historian, emakumeek bozkatzeko eskubidea lortu zuten. Martxoaren 8ak berriz, 1857an New Yorken lan baldintzak salatzeko emakume talde baten aldarrikapena gogoratzen du. 1975ean martxoaren 8a Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna izendatu zen.



Egun honek aitortu egiten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubide izateaz gain, "Gobernu onerako" faktore oinarrizko eta ezinbestekoa dela eta, horrekin batera, Euskal Herriko giza garapenaren eta gizartearen garapen sozial eta ekonomikorako elementu beharrezkoa. Berdintasunerako bidean aurrerapausoak eman dira, bai, baina luzea da oraindik egin behar den ibilbide zatia.

Oraindik ere, XXI. mendean eta mendebaldeko gizartea deitzen den honetan, gizonak emakumeak baino gehiago direla pentsatzen da, eta haiek egiten dutena garrantzitsuagoa delako ustea zabaldua dago. Hainbat gazte jendearen buruan errotuta dagoen pentsamolde hori da esparru ugarian desberdintasunak eta diskriminazioa betiketzea eragiten duena.

Eredu patriarkal eta matxistatik jauzi egin behar dugu eredu berdintzaile eta bidezkoagora sartzeko. Arduratuta ikusten dugu orain arte lortutakoan atzerako pausuak ematen ari direla. Abortatzeko eskubidea ukatzeko kontrarreformarekin, krisiaren itzalean onartu diren lan baldintza atzerakoiekin, LOMCerekin berdintasun eta hezkidetzaren alde egindako lana ezabatu nahirik. Hedabideetako edukiek eta publizitateak ere estereotipo, rol eta balio sexistak elikatzen eta indartzen dituzte. Gaur egun, esan dezakegu, hedabideak estereotipoen habia direla.

Balore aldaketa hori sustatzea lan konplexua da. Norbanako bakoitzaren pentsamoldean eragitea suposatzen du. Emakume eta gizon guztion lana da, gizarte garatu eta aske batek ezingo baitu aurrera egin, biztanleriaren erdi bati beste erdiari ematen dizkion aukera berberak eman ezik. Horixe izango da, emakume eta gizonok borrokatik garaile irteteko giltzarria

Egoeraren irakurketa gordinak egoeraz jabetu eta erantzuna pizteko balio izatea nahiko genuke, beraz, elika ditzagun aliantzak eragile sozial, politiko eta sindikalekin, inguruko emakume eta gizonekin, Euskal Herri euskalduna eta berdintasunean oinarritutakoa eraikitzeko.

Azkenik, Martxoak 8 larunbata, egingo diren ekitaldietan parte hartzera animatu nahi ditugu berdintasunarekin bat egiten duten emakume eta gizon guztiei."

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, adierazpen instituzional hau onartu egiten du.

#### IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

